

Bizitza burujabea eskubide osoz

ALTERNATIBEN HERRIA

Alternatibak dituen herria, bizirik dagoen herria da. Horixe irudikatzeko asmoz, Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartaren Asanbladak datorren 2015eko urriaren 24ean "Alternatiben Herria" ekimena abiatuko dugu. Aldarrikapen eta ospakizun eguna izango da, egunerokoan bizia ematen diguten hamaika proposamen handi eta txikien erakuslehioa, Kartaren ardatz nagusiak jarraituz. Topagune komuna.

Ekimen honekin jarraipena emanen diogu BIZI mugimenduak, 2015eko abenduan Parisen klima aldaketari buruzko Goi Bileran dela eta, Alternatiben Herriak antolatzeke egindako deialdiari, "*sistema aldatu, ez klima*" lemapean.

Izan ere, badira gure artean alternatibak egungo eredu soziala gaintzen joateko. Hauetako asko gure esku daude; beste hainbeste, jorratzeko zain. Hauek guztiek aukera ematen digute Euskal Herri justu, solidario eta desiragarriagoa egiteko.

Zer egin nahi dugu? Zer proposatzen dizuegu denon artean egiteko?

- Euskal Herrian zehar, nor bere herrian, auzoan, taldean,... aurrera eramaten ari garen alternatibak eta proiektuak erakutsi. Eta erakustearekin batera, informazioa partekatu, elkar ezagutu, gure artean gogoeta egin eta eztabaidatu... Denon artean konplizitatea, aliantza, konfiantza,... behar eta nahi ditugu gure alternatiba ezberdinak sartzeko eta indartzeko. Horrela bakarrik aldatuko dira gauzak!
- Botereek ezintasunera eraman nahi gaituzte. Haiek behin eta berriz sinestarazi nahi digute bide bakarra dagoela, ez dagoela beste alternatibarik. Horren kontra matxinatu nahi dugu. Bestelako bide batzuk jorratzeko ideiak, proiektuak, intuizioak, gogoak,... baditugula erakutsi nahi dugu.

Hartara, heldu den urriaren 24an, Bilbon, Alternatiben Herria egingo dugu. Egunaren zehar, Bilboko erdigunea, herri txiki bat bihurtuta, hausnarketaz, alternatiba praktikoz eta baikortasunez beteko dugu. Mobilizazio eraikitzailea, denontzako tokia eginez.

Gune bakoitzean, arlo bakoitzean martxan dauden alternatibak ezagutaraziko dira jarduera ezberdinen bitartez: hitzaldiak, mahai inguruak, azoka, tailerrak, kale ikuskizunak, jolasak,... Zuen ideien eta ekarpenen zain eta irrikitan gaude!

Orain arte eragile anitzekin eginiko Batzar Irekietan, honako guneak eta gune bakoitzeko eduki nagusiak proposatu dira:

- **Natura** (energia subirautea, klima aldaketa, hondakinak, mugikortasuna, elikadura burujabetza, kontsumoa,...)
- **Ekonomia erdua** (finantzak, txanpona, ekonomia sozial eraldatzailea, aberastasunaren banaketa, enplegua,...)
- **Demokrazia, soberania eta parte hartzea** (eredu ekonomiko, soziala, kulturala eta politikoa erabakitzeko eskubidea, partehartze soziopolitikoa, partehartze prozesuak, herrien arteko elkartasuna...)
- **Bizitzaren iraunkortasuna** (zaintza, harremanak, gorputzak,...)
- **Aniztasuna** (jatorria, identitatea, sexu, funtzionalitatearen inguruko aniztasunaren kudeaketa, ...)
- **Ondare komuna** (euskal hizkuntza, hezkuntza, euskal kultura)

Noski, egunak festa kutsua izan dezan kale animazioa, jan-edanerako gunea, musika,... ez dira faltako. Eraldaketaren bidean, denon lana beharrezkoa izango da Alternatiben Herria antolatzen eta baita alternatibak eraikitzen jarraitzeko. Denon artean, Euskal Herri bizia eraikitzen jarraitzeko.